

# ZAINDU EZAZU PLANETA ETXETIK

CO<sub>2</sub> Bezalako berotegi efektuko gasek (BEG), atmosferan sartzen den eguzki-argiaren beroaren parte bat xurgatzen dute, horri esker, atmosferak beroari eusten dio, prozesu hau ez balitz gertatuko, luraren batez besteko tenperatura **-18 °C** izango litzateke. Baina BEGen kopurua handitzean, berotze globala ematen da, eta horrek klima-aldaketa eragiten du. Hau ekiditeko **inportanteena BEGen emisioak murriztea** da. Nola? Hona hemen proposamen batzuk:

-BEGen, adibidez CO<sub>2</sub>-aren, emisioen eraginari buruz hausnartzea.

-Lehentasuna eman mugikortasun jasagarriari, garraio publikoa pribatuaren aurretik erabiliz.

-Karbono aztarna gutxiko elikadura izan: haragi gutxi kontsumitu.

-Kontsumitzaile arduratsua izan zaitez, produktu lokala eta sasoikoa erosiz.

-Klima aldaketaren aurkako borrokan aktiboki parte hartu, erakundeei inplikazio handiagoa eskatuz.

-Erabilera bakarreko elementuen aldean, elementu berreilgarriak erabiltzea lehenestu.

Zure etxetik aldaketa klimatikoaren kontra bat egiteko eta laguntzeko **ERRONKA** proposatzen dizugu:



Landareek **airetik xurgatzen duten CO<sub>2</sub>-a** finkatzen dute, **atmosferatik kenduz**; horregatik, beste arrazoi askoren artean, funtsezkoa da basoak kontserbatzea.

**Animatzen zara etxean landareren bat landatzera?**